

X. Armeidaritz

Euskal izen eta izenaz

1976

ZABAL

Adiskideok!


aginduak agindu eta hona hemen prometaturiko lana. Dakusakezuenez hau luze doa, eta okerrago dena, ezin labur dezaket, dokumentapena behar beharrezkoa iruditzen baitzait. Hori dela eta, zatika argitarara dezakezuela pentsatu dut. Honekin doakizue lehen partea. Beste birekin osatzeko asmoa dut, ahal badut, bestela hirurekin.

Ez dakit nonen lan luze batek ZABALEn argitaratzea merezi dizuen. Nik neuk, behin lan osoa bukatu eta gero, liburu edo liburuxka gisa argitaratzea nahi nuke. Horregatik eskaintza etab.

Hurrengo lanaren puntu printzipalak ere aipatzen ditut.

Hor ez badituzue, komeniko litzateke BARBERO-VIGILEn lana eta CARO BAROJAREna lortzea, benetan interesgarriak baitira.

Besterik ez. Laster ikusteko esperantzan

Xabier


313-5/1

EUSKALDUNON IZEN ETA IZANAZ

①

Hizkuntza eta politikari buruzko saioa

Xabier ARMENDARITZ

Hiri Murgi, lagun ahantzezina.

Lekeition hil hindutenean guztiok hil gintuen nolabait hirekin. Horregatik, gu biziko garen bitartean hi ere biziko haiz gurekin. Eta bihar, bihar, Murgi, hortxe, hiri eta hire moduko beste askori esker, hortxe, eskuen aldamenean dugun bihar horretan...

Murgi, hainbeste gauza dituk posible bihar!

1. Aldez aurretiko kontsidero batzu

Intelektualen lana, neurri haundi batez, kalegarbitzaileenaz gonbara daiteke. Bizitzeko premiaz batzuek, barruko ezinegonaz besteek, azken buruan bitzuok egiten dute inork egin nahi ez duen trabailu latz, lohi eta atsekabea. Ondorioak, gainera, oso antzekoak izaten dira kasu bietan: inorentzat argia eta garbitasuna lortzen ahalegintzea, beraik, aldiz, kenduriko zikintasunaz kirasturik geratzen diren artean. Gizarteak eman ohi dien ordaina bera, bestalde, berdintsua izaten da: bizi direlarik meziprezioa eta arbuiape-na, hil ondoren, onen onenean, haietaz oroitzapen debot bat eginez.

Garbitze lana, eta gauza urrun eta hurbilei hautsa kentzea horixe besterik ez da, guztientzat izaten da atsekabea. Kentzeak berak jadanik hor hautsa ba zela erakusten du eta, horrelatan, hura ez zegoela etxekoek uste eta nahi zuketen bezain garbirik.

Bestetik, zenbait eritzi finkatu, uste mythiko eta pertsona sakratu batzu hotz hotzean ukitu eta aztertu ondoren, aldare apalago edo eta lur gainean biluzik ezartzea ez dute askok gogoko, horrek, azken batez, aspal-didanik eta buru nagikeriaz barnaturiko mundulerkuntza lasai bat aldatzera baitaramatza, eta hor nekea dakusate.

Aurreritziarik gabeko aztertze lanak, gainera, susmatu gabeko ondorio batzutara eramán gaitzake, bai eta, malaber, ordurarteko ideologia batzuren oinharriak hain sendo ez, oker edo eta erabat faltsu^{zireka}erakutsi ere, hortik zenbait lagunen kontzepzioak errotik deseginez. Baina munduon aurrera joateko bagara, nagikeriak eta erosokeriak ez baina lanak eta nekeak eragin behar gaituzkete.

Esanak esan ondoren, nahiko argi geratzen dela uste dut, ongi dakidala zertan sartzen naizen, eta zer nolako ondorioak espero ditzakeen hembendik, batez ere beren burua lan honetan nola edo hala aipatua ikus dezaketengandik. Eta hala ere orain arte inork egin nahi ukan ez duen lan bati aurre ematera noa.

Euskal Herrian moduak eta prozedurak asko esan nahi dute oraino, eta bidezkoa da, jakina, dugun indar urria kontuan hartuz gero, orain arteko erizkidetasuna nolabait apurtzera datorkeen aburu berri batez susmoak egitea.

Etxeko oinharriak aztertzean -- alde zurretik diot-- zenbait gauza lotsagarri eta ezusteko ager litezke, eta hor norbaitek pentsa lezake aldebatekokeriaz nabilela, norbere etxeko zikina agertzen dudan artean hauzo-areneko kiratsaz deus ez baldin badiot. Eta, egiak egia, gauden zapalkuntz egoera honetan arriskugarri zaiguke gauzak aseptikoegi tratatzea, gonbaraketa eta perspektiba orokorrago batik gabe.

Dena den, ez dakit ez ote den bidezko euskal idazle bati alde zurretik konfidantzako boto bat ematea, zeren bere aukerak Euskal Herri eta hizkuntzaren alde eginak dituen pertsona batek -- hautapen honen kontra dauden oztopoak kontuan harturik --, nik uste, puntu batetaraino, erdal diruz itsuturik ez egoteko garantia franko baitauzka. Betiko betikoek, hala ere, ohi bezala, hor ardi larruz jantziriko otso beltzak besterik ez dakus-kikete. Ez gaude, jakina, holakoei inolako arrazoirik emateko, gorrik txarrenak entzun nahi ez dutenak direla ongi jakinik.

Gonbaraketak, horregatio, mesedegarriak izaten dira beti, desegokitasuna gora behera, eta perspektibaren zentzua ez galtzeko kontura ekarriko ditugu, gure ustez, hala behar denean.

2. Nazio izenen eratzeaz

Saio honen funtsa osatzen duenari zuzenki ekin baino lehen, uste ukan dut on datekeela, gaingiroki bederen, arazo honetaz zenbait kontsi-dero orokor egitea, puntu batzu, horrela argiago gera daitezen.

Nazioen izenak ez dira European, oro har, oso zaharrak. Erromatar eta grekoen kasuak salbu, Europako nazio gehienek Erdi Haroaren hasierakoak ditugu, eta horretarako politik arrazoi batzu izan dira.

Elkarrekin eta harremanetan bizi den giza talde batek hizkuntza berbera -- zenbait dialektaziorekin --, oñiturak, erlijio eta usadio kidesun bat duenean ethnia bat osatzen du. Ethnia horrek bere nortasunaren kontzientzia duenean eta hura defendatzen saiatzen denean, nazio bat dela esaten da.

Nazio baten bilakabide normala -- ingurukoek itotzen edo hurruputzen ez dutenean -- bere bizimodua seguratzeko, bizi den lurraldea defendatzeko eta bere nortasuna zaintzeko erakunde bat moldatzera heltzea izaten da. Erakunde honi, eskuharki, Estatu nazionala deritzo.

Nolabaiteko politik erakunde bat eratzeako asmorik agertzen ez den artean ez da sortzen giza talde oso batentzako izenik. Izan ere, nazional izenen funtzioa markatzailea izaten da, hots, mugak seinalatzea, hauzo herrietatik bereiztea, eta nekez egon daiteke holako izenik defendatu

edo gorde beharreko lurralderik ez den artean (1). Nazioaren izenak, hortaz, bi modutara obratzen du; lehenago eta behin izen harekin izendatzen direnen artean batasun kontzientzia bat sortuz eta indartuz, eta bigarrenik kanpokoekiko muga bat ezarritz.

Nazioen izenak, gehienetan, bi modutatik sortzen dira: a) Geographiatik, eta b) herritarrengandik. Lehenbiziko kasuan lurralde batek (Italia, Ukraina, Cuba, Sahara...) edo eta hiri batek (Roma) ematen die izena bertan bizi direnei (Italiano, ukrainskiy, cubano, saharawi...romanus). Hauetan guztietan hiri edo eta eskualde batek bere politik nagusigoaren eraginez sorteraizten eta hedatzen du bere inguruan izen hori eta bizilagunena moldatzen.

Bigarren kasua, aldiz, are normalagoa izaten da. Beronen arauera, gens, tribu edo giza talde batek, aurretik izen ethniko bat duenak, (pluralez erabilia gehienetan (2)) bere deitura horretatik izen kolektibo bat ateratzen du eta hori bilakatzen da herrialde osoa adierazteko hitza. Honela Deutsch-etik Deutschland, franci-tik Francia, hállēnes-tik Hellás, rus-tik Rossiya, áryanam-etik Iran (3), vascones-tik Vasconia, giputz-etik Gipuzkoa, nafar-tik Nafarroa, etab.

Zenbait ^{etan} ~~kasutan~~ kasu batetik bestera ere iragaten da. Exenplu ezagun bat agertzeko, aipa dezagun giputz → Gipuzkoa → gipuzkoar delakoa, hirugarren hitza, giputz hitz jatorrizkoaren bukaera kakophonikoagatik sortua izanki.

3. Euskal lurraldeen egoera erromatarren garaian

Garai klasikoetako geographo greko eta erromatarren aipueta-tik ba dakigu gaur Euskal Herria izenez ezagutzen dugun lurraldea, ekialde-tik meldebaldera baskoi (vascones), barduliar (varduli), karistiar (caristi) eta autrigoi (autrigones) izeneko giza talde batzuk populatua zela denbora horietan.

Giza talde horien sozial egitura, geographo haien esanez, gentilitas delakoa zen, hots, gens batzu osatzen zituztela. Caro Barojak azaltzen duenez (4), gensen batasuna odolkidetasunean oinarritzen zen, hau da, zenbait belaunaldi lehenago taldeko guztiek edukiriko ahaide edo asaba komun baten oropenean.

Gens haik, erromatarren garaian jadanik talde berezi batzu baziren ere, ba dirudi hizkuntza berekoak zirela, eta gaurko euskararen iturrria izan zen hizkuntza batez baliatzen zirela (5). Honek esan nahi duke, segurenik, mende batzu lehenago gensen sozial erakunde horren iraupenez, talde guztiak baturik zeudekeela, jatorri komun zaharrago horren gomuta, migrazioz edo demographi hazkundeaz, ordurako ahantzirik egon arren (6).

Historiak orduko egoeraz ematen dizkigun datu eskasetatik atera genezakeen konklusioa, guti gora behera, hauxe dateke. Gaurko Nafarroa eta Arabako hegoaldeko populazioek -- bai eta kostaldeko zenbait herritakoek

ere -- jadanik, guti edo aski, ba zekiketen latinez, nolabaiteko zibilizazio mailan egonik; Iruinea, Irunberri, Kalagurri, Oiarso hirietakoak, noski, holako egoeraz zeudekeen. Mendietan bizi zirenek, ordea, Saltus Vasconum delakotik gorakoek halegia, bizimodu basati batetan zirauten, latineztapenik, ia batere gabe. Hegoaldekoekiko tratua, dena den, hizkuntza komunari esker, ez zuten galdua, hala ere.

Mendietako jendeak basati eta arriskugarri zirela, erromatarrek Arabako Iruñetik Oliteraino ezarri zuten defentsa sistimak berak erakusten digu, ez baitzen holako kanpamendurik beharko iparraldeko jende zibilizatugabeen beldur ez baziren (7).

4. Visigoduen garaiko egoera

V mendean visigoduek erromatarren enperadoregoaz jabetzean, berauek konpondu ez zituzten arazoak heredatu zituzten, eta horietako bat, jakina, euskal lurraldeena izan zen.

Erromatarren garaian menditar basati eta erromatarren artean -- hego lautadetako jende bi hizkuntzadunei esker seguraski -- nolabaiteko entente cordiale bat izan bazen ere, ez zen beste horrenbeste gertatu visigoduekin.

Visigoduen militar erasoaz hiriak bizitzeko leku arriskutsuak bilakatu ziren eta bertako jendeek handik ihes egin zuten, mendietara joaz, hots, hizkuntza bereko basatien artera. pentsatzekoa da migrazio honen bidez heldu ziratekeela menditarren artera hiritar bizimoduko tresna eta hitz asko, ordurarte iparraldean ezezagunak. Iheska zinoazenen artean, khronistek dioteenez, bagaudak ere ba zeuden, hots, erromatar villae eta fundi-etan arituriko eta handik eskapatuturiko esklabuak, beren aintzinako jabeen kontra burrukatu ondoren, visigoduen morrontza berrian ez erortzeko, menditar jendearekin elkartzen zirenak (8).

Hirien despopulaketa jeneraldu honegatik, kostaldeko eta mendietako herrialdeak, sasoi honetan, jendez gainpopulaturik egotera heldu ziratekeen, eta laborantza behar bezain aurreraturik ez zegoelako eta, gosea ez zatekeen, segurki, faltako. Hauxe izan zitekeen, nik uste, ordurarte hain apart eta baketsu bizi izandako jende haik beren mendietatik behera militar espedizioetan irtetera bultzatu zituzten arrazoiatarik bat.

Visigoduek lautadetako lurralde laboretsu emankorrez jabetu nahian, iparralderago bizi zirien jende mordoei bizibidea kentzera zetozen, eta berauek, zuten lagunteriaz baliaturik, etengabeki eratzen zituzketen beren irteteak bizigai eta janari bila.

Visigoduen etorrerak, beraz, hegoaldetik pixkanaka sartzen ari zen erromatarkuntzari geldiune bat ezartzeaz gainera -- gorago joandako jende hiritarrek, latin kutsuaz bazen ere, menditarrekin euskara egin behar baitzuten -- ordurarteko sozial egitura saranna irauliko zukeen, toki ezberdinetako jendeak elkartzean, odolean oinharrituriko gens-en estructures zaharra gaintuz.

Dokumenturik ezaz, zer nolako egoera egon zen ez dakigu, baina hala ere, bistakoa da visigoduen etengabeko erasoetara behin eta berriaz erantzun ahal izateko, bai eta hain hegoaldera irteteko, VI mendeko menditarrek nolabaiteko politik erakunde bat osatua zutela, militarra bereziki (9). De facto, gainera, independenteak ziren (10) eta hor, lehen aipatu dugunaren arauera, mugak eta nazional seinaleak ezartzeko lehen baldintzak sortzen dira.

Oso interesgarria da, gainera, orduko khronikek diotena aztertzea. Erromatarren garaiko gensak, hots, autrigoi, karistiak, barduliar eta baskoiak, ez dira jadanik agertzen dokumentuetan, guztiak izen bakar batez izendatuz: vascones. Ez dirudi baskoi izeneko gens zaharrak beste guztiak bere menara eraman zituenik (11), aitzitik, horrek gens zabalduenaren, eta beharbada ugarienaren, izenaren zabalera huts bat ematen du, mende batzueko geroago, XVI-XVII mendeetan apika, vizcaino izenaz -- euskaldun guztiak aipatzeko erabilia -- gertatuko zen bezala. Sasoi berean hasten da, gaurko zentzu geografiko berberaz, Vasconia hitza agertzen.

Zenbait azterlarik (12) pentsatu ukan du vascones eta Vasconia izen jeneralduok orduko khronista visigoduen oker edo ahanzte bat izan zela, hategia, erromatarren garaiko banaketak ahantziak zituzketela. Ez dut nik hain garbi ikusten, horregatio, nondik atera daitekeen visigoduak erromatarrek baino khronista eskasagoak direla esateko arrazoirik, batzuek kondatzen dituzten sinesten dugun artean besteena ez sinesteko.

Ene eritziz, zentzuzkoena, hain zuzen ere, bestea da, dokumentuek diotena ad litteram hartzea. Eta hola bada, jakina, galdera bat egin beharra dago, hau da, zer gertatua zen gensen egitura zaharrarekin?

Gorago esana dugunez, visigoduen erasoak aurreko egonkoitasunetik atera zituen euskal mendietako jendeak, bai eta bizitzaren aldeko burrukara bultzatu ere. Horretarako baina, visigoduen armada indartsua eta menditarren indar erlatiboki urriak kontuan harturik, haien artean batasun bat sortu beharra zegoen.

Gensen oinharria, aipatu denetik, odolkietasunean funtsatzen zenez gero, ez zen gauza politik esturktura berriaren zutabea izateko. Hura gainditu beharra zegoen eta hizkuntzaidetasunaren kontzeptio funtzionalean eratu zuten beren nazioa. Ez ziren, hortaz, khronista visigoduen oker batzuek Vasconia eta vascones hitzak, baizik eta latinez herri haren batasun berria adierazteko modu huts bat.

Izenok, jakina, euskaldun ez ziren herriek bazerabiltzaten ere, ez ziren interesatuek beren burua adierazteko esaten zituztenak (13). Zeintzu ziratekeen, orduan, jende haien hizkuntzazkoak? Dugarik gabe, erantzuna guregana heldu diren izenetan datza: euskaldunak, Euskal Herria hitzetan.

Izen biotan sustrai komun bat agertzen da, euskal-, euskara hitzaren deribaziorako forma. Honen arauera euskaldun 'euskara duena' da, hots, eslaviarrek egin zuten bezala (14), 'herri mintzaira zekiena'. Euskal

Herria, aldiz, 'euskaraz mintzatuz ibil zitekeeneko lurraldea', euskaldunek populatua, hitz batez.

Euskaldunen nazio batasuna eratzea, beraz, visigoduen garai-ko zapalkuntz egoera bereziari zor zaio, eta batasun hori hizkuntzan, hizkuntzaidetasunean oinarritzea, aldiz, orduko bizilagun guztien integratzena lortzeko modu bakarra izan zen (15).

Historiaren ikuspegitik, hortaz, euskaldunez eta Euskal Herri-
az V-VI mendeetatik aurrera mintzo gaitezkeela dirudi, eta ez lehenago. Haien aurrekoak nazional batasun batetara oraindik helduak ez ziren gens edo talde batzu ziren, Herri berbera izateko kontzientziarik gabeak. Zehazki hitz egitekotan, beraz, askok jatorri gabekotzat jotzen zuten herri "ezin zaharrago" honek orain hamabost bat mende ukan zuen bere nazio sortzea (16).

Askatasun, berjabetasun eta batasun egoera horretan, lehenik visigoduen kontra eta geroago musulmanen kontra burrukatuz, XI menderaino iraun zuten, zenbait gora beherekin, euskaldunek, zati luzetxo batetan Irui neko erregetzaren azpian baturik hain zuzen(?) Beren nazional sentimendua maitzeko eta nazio izenak bizilagun guztien artean barraiatzeko, honela, bostehun urte inguru ukan zuten euskaldun jendeek (18).

(segitzeko)

Xabier Armendaritz

(76-I-1)

Hurrengoan:

Euskara izenaren etymologiaz

Euskaldunen nazio kontzeptzioa

Euskal historiaren konstante batzu

Euskal arrazismoaren sorreraz

XIX mendeko sozial eta kultur egoeraz

OHARRAK

- (1) Hauzo gabekó herri ezagun baten kasua aipa genezake hemen, eskimalena. Berauek beren hizkuntzan inuit esaten dioten beren buruari, hau da, inuk hitzaren plurala, 'gizonak' halebria, munduko bakarrak beraik bailiren.
- (2) Grekoz, pertsiarrei esateko persai 'pertsiarrek' dokumentatzen da hasieran, beti pluralaz. Euskaldunei buruzko latin aipamenean artean ere, lehenbizikoak beti pluralazkoak dira, vascones. Ikus Eugenio COSERIU, Teoria del lenguaje y Lingüística general³, Ed. Gredos, Madrid, 1973, 273-278. horr. Euskaldunen aipamenerako, ikus A.SCHULTEN, Las referencias sobre los vascones hasta el año 810 después de J.C., R.I.E.V.en, XVIII tomoa, 1927, 226-233. horr.
- (3) Iraniarrak dira, hortaz, gaurdaino beren izenean aryar izena gorde duten bakarrak. Ikus Antoine MELLETT, Introduction à l'étude comparative des langues indo-européennes, reprinted by University of Alabama, 1973, 58. hor.
- (4) Ikus Julio CARO BAROJA, Los pueblos del Norte², Ed. Txertoa, S.Sebastián, 1973, 63-82. horr.
- (5) Kontuan har bedi, oraindik norbaitek ez badaiki, orduko garaletako hizkuntzatik gaurko euskarara, guti gora behera, sasoi bereko latinetik gaurko erdaretara dagoen alde berbera dagoela. Ikus, honetaz, I.MITXELENA, Zenbait hitzaldi, Ed. Mensajero, Bilbo, 1972, 31-32. horr. Ikus, halaber, A.BARBERO, M.VIGIL, Sobre los orígenes sociales de la Reconquista, Ariel, Barcelona, 1974, 57-58. horr.
- (6) Ikus J.CARO BAROJA, Los pueblos del Norte, 79-81. horr.
- (7) Ikus A.BARBERO, M.VIGIL, op. cit., 32-33. horr.
- (8) Ikus A.BARBERO, M.VIGIL, op.cit., 40-47. horr.
- (9) Ikus BARBERO, VIGIL, op. cit., 64. hor.
- (10) Ikus BARBERO, VIGIL, op.cit., 52. hor.
- (11) Ikus BARBERO, VIGIL, op.cit., 57. hor. eta CARO BAROJA, op. cit. 100. hor.
- (12) Ikus CARO BAROJA, op. cit., 131. hor.
- (13) Gaur egun ere maiz gertatzen da holakorik: vasco/euskaldun, alemán/Deutsch, georgiaro (gruzinskiy)/kartveli, japoniar/nippon...
- (14) Eslaviar hitza (slovene) slovo 'hitz'-tik dator. Eslaviarrek beren modura mintzo zirenak kontsideratzen zituzten herkide. Inguruko herrietako-

ei, germaniarrei bereziki, neme- (nemenskiy) esaten zieten, hau da, 'mutuak'

(15) Historia aztertzeak, noski, honelako ezusteko arazoak agertzen dizkigu. Kontuan har bedi garai hartako gens-ekin batera, etorki ezberdin askotako esklabuak ere, bagaudak, sartu zirela mendietara babes bila, euskaldun herria guztien ondorioa delarik.

(16) Honek ez du esan nahi, noski, euskara eta euskal etorkia orduan sortu zirenik. Lehenago ere, jakina, une horrezetatik euskara deitu^{ko} zèn hizkuntzaren aurrekoa ba zen, bai eta, gens guztien artean banaturik, geroago euskal nazioa izanen zèn jende gunea. Baina batasun historikoa, nazio berbera izateko kontzientzia, orduan, eta ez lehenago, agertu zen.

(17) Iruineko erresuma diogu eta ez Nafarroakoa. Nafarroa (Navarra) izena XI mendean dokumentatzen da lehenbiziko^z, eta gaur Nafarroatzat ezagutzen dugun lurraldea izendatzeko soil-soilik. Historikoki ezin mintza daiteke Nafarroako erresumak Euskal Herri osoa eduki zuela, gezurra baita. Kontua beste hau da: sasoiko erregeek beren boterea onhartzen zuten hiri nagusien erregetzat agertzen zirela (Iruineko, Gasteizko, Durangoko etabarreko errege, kasu). Formula horrek, latinez edo eta nafar erdaraz emanak, haren peko jende euskaldunek euskaraz herrialde osoari zein izen ematen zioten estaltzen digu, baina oinharri sendo asko ditugu, noski, hura Euskal Herria zela pentsatzeko. Rex navarrae delako formula agertzen denerako, jadanik Iruineko monarkhak Araba, Gipuzkoa, Bizkaia, Errioxa eta Jakaldea galduak zituen, Nafarroa hori, hortaz, gaurkoa besterik ez izanki.

(18) Horrela esplika daiteke, nik uste, nola den posible gaurdaino Zuberako puntatik Bizkairaino euskaraz mintzo diren jende xeheen artean, bai eta inolako politik formaziorik ez dutenen artean ere, euskaldun izateko eta Euskal Herrian bizitzeko kontzientzia hain sakon sarturik egotea. Nazio izenon iraupenak berak, besterik ezean, aski garbi darakuskigu euskal batasun politikoaren existentzia. Pentsa dezagun, kasu, gu baino modernoago diren eta nazio izen bakarraren faltaz herri berbera izateko kontzientzia ez duten ingurukoez: Katalunia/Valentzia/Balear irlak, Galizia/Portugal... horietan hizkuntz batasuna gurea baino askoz ere haundiagoa izan arren.